

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5061

1730/2025 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez betearazten baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2025eko irailaren 24ko Erabakia, zeinak partzialki baiesten baitu Ebazpen honen kontra jarritako gora jotzeko errekurtsioa: maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratu baitziren 2025. urteko otsaileko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta deitutako destinoen behin betiko esleipena, fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-sanitarioetako erankudeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketaren deialdia egin zen fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean (urtarrilaren 13ko EHAA, 7. zk.), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 14ko 109/2025 Ebazpenaren bidez, 2025. urteko otsaileko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko destinoen eskaintza argitaratu zen, fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean (otsailaren 28ko EHAA, 41. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren apirilaren 14ko 389/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu ziren 2025. urteko otsaileko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta deitutako destinoen behin-behineko esleipena, fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-sanitarioetako erakundeetan izanik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu ziren 2025. urteko otsaileko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta deitutako destinoen behin betiko esleipena, fakultatibo medikoen eta teknikoen lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean (ekainaren 2ko EHAA, 102. zk.).

Ebazpenaren I. eranskinak 2025. urteko otsaileko zikloko onartutakoen zerrenda jasotzen du, lan-esperientziaren, prestakuntzaren eta euskararen merezimenduei dagokien guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta. Ebazpenarekin batera, puntuazioaren zerrenda xehatua dago, merezimenduen arabera banatuta.

Xabier Zarandona Zubero lehiakideari bere merezimenduak barematu zitzaizkion, eta guztira 35,2696 puntu eman zitzaizkion. Ondorioz, 111. lekua bete zuen 2025. urteko otsaileko

esleipen-zikloan onartutako 117 pertsonako behin betiko zerrendaren lehentasun-hurrenkeran. Guztizko puntuazio horretan, 13,1000 puntu prestakuntza-merezimenduari zegozkion.

Ebazpenaren III. eranskinean, destinoa esleitu zitzaion Xabier Zarandona Zubero lehiakideari.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpenaren aurka, Zarandona Zubero jaunak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen, lan-esperientziari eta prestakuntzari dagozkien merezimenduei emandako puntuazioa okertzat jotzen zuelako.

Aurkeztutako errekurtsua behar bezala aztertu da, eta prestakuntzako merezimenduari dagoen puntuazioan transkripziozko oker material bat dagoela egiaztatu da; izan ere, esleitutako 13,1000 puntuen ordez, 16,2300 puntu esleitu behar zitzaizkion.

Ondorioz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak egokitzen jo du partzialki baiestea gora jotzeko errekurtsua, 2025eko irailaren 24ko Erabakiaren bidez, eta ebatzi du honako ebazpen hau zuzendu behar dela, zuzenbidean bidezkoak diren gainerako ondorioekin: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpena, zeinaren bidez argitaratu baitziren 2025. urteko otsaileko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta deitutako destinoen behin betiko esleipena, fakultatibo medikoen eta teknikoan lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean.

Horiek guztiak horrela, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpena ematea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2025eko irailaren 24ko Erabakia betetzeko, eta zuzentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baitira 2025. urteko otsaileko zikloko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta deitutako destinoen behin betiko esleipena, fakultatibo medikoen eta teknikoan lanbide-taldeko familiako medikuntzako fakultatibo espezialista medikoaren-LMAT kategorian / lanpostu funtzionalean (ekainaren 2ko EHAA, 102. zk.). Zuzenketak honako hauek dakartza:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpenaren I. eranskina zuzentzea. Eranskin horretan 2025. urteko otsaileko zikloko onartutakoen zerrenda eta pertsona bakoitzari merezimenduetatik esleitutako guztizko puntuazioa jasotzen dira, eta Xabier Zarandona Zubero jaunari hiru merezimenduen puntuazioaren baturagatik dagoen puntuazio zuzena ezarriko da; hortaz, «35,2696» dioden lekuan, «38,3996» esan behar du.

Merezimenduen arabera bereizitako puntuazioaren zerrenda xehatuz, zuzentzea prestakuntzazatik kalkulaturako puntuazioari dagokion zifra; hortaz, «13,1000» dioden lekuan, «16,2300» esan behar du.

Zuzenketa aritmetikoaren ondorioz, destinoaren esleipena lortzeko lehentasun-hurrenkera aldatu da, eta 2025. urteko otsaileko esleipen-ziklorako onartutako pertsonen zerrendan 105. lekua beteko du. Ez da aldaketarik egin behar destinoen esleipenean.

Bigarrena.– Agintzea ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lekualdatze-lehiaketaren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin.

2025eko azaroaren 27a, osteguna

Hirugarrena.– Gainerako jardueretarako, mantentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 26ko 860/2025 Ebazpenean ezarritakoa.

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.